



Linea2 taldearen estetika eta jarrera rocka da. Zergatik "Brazos cruzados" izenburua?

Linea2 taldeak bere bigarren diskoan esan zuen bezala, bihotzik gabeko mundu batean bizi gara, non bakoitzak bereari eusten dion eta bost axola auzokoari gertatzen zaiona norbera libratzen bada. Disko berri honetan bide beretik doaz gure hausnarketak, pairatzen ditugun arazoak ez baitira konpondu inolaz ere, areagotu baino: langabeziaren igoera, gosetearen igoera munduan... Gaur egun munduan, oraindik ere, jende kopuru handia hiltzen da gosez. Gu gehien arduratzen gaituen arazoetako bat klima-aldaketa da eta egunetik egunera ingurugunea nola suntsitzen ari garen ikusten dugu, eta gu besoak gurutzaturik, eta, gainera, sinesten ditugu egiten dizkiguten erdipurdiko promesak eta gero hitza jaten dute. Gatibaturik gaude, kondnaturik, eta besoak gurutzaturik segitzen dugu. Diskoaren izenburuak hor du xedea.

Linea2 taldeak kanpora joateko joera nabarmena du. Non aurki daitezke ate egokiak?

Linea2 taldeak ez du uste ate egoki bakar bat dagoenik baizik eta hotel bateko korridore luze bat atez beteta; horietako batzuk besteak baino egokiagoak dira baina guztiak dira ireki beharrekoak. Atea ikusten dugun bakoitzean, ikusi behar da zer dagoen ate horren atzean eta inoiz ez koldartu atearen atzean aurkituko dugunaz, nahiz eta ikara eta izua sortuko digun. Funtsean, Linea2 taldearen kanpora ateratzeko arrazoia hori da, ez dugu musikarik egiten mugak ixteko, irekitzeko baino. Musikari irtetzen utzi behar zaio, musika ezin inoiz geldiarazi.

Linea2 taldeak musikari-laguntzaile ezagunak aukeratu ditu diskorako.

Bai, egia esateko, arlo horretan zorte handia izan dugu, lehenetik entzun eta miresten genituen musikari asko ezagutu ditugu eta eurekin lan egitea eta lagun bihurtzea izugarria izan da. Musikari horiekin partekatu dugu gure lana eta eurekin bizitakoa, esperientziak, bitxikeriak eta abar ezagutzea inguruko gure gerorako. Beti ikasi egiten da batekin zein bestearekin oholza gainera igotzen zarenean. Esperientziatik eta eskarmendutik ikastea biziki ongi dago eta guk amets hori egia bihurtu dugu. Kutxi edo Francis bezalako musikariek grabatzeak eskarmentua ekarri digu, eskarmentu atsengingarria, bi maisu horiekin pixka bat gehiago ikasi dugu. Baina beti esaten dugun bezala, oraindik bide luzea dugu ibiltzeko eta luzeago ikasteko, behin betiko eskola da hau.

"Buscando la inspiración" (2002, maketa)
"La última gota" (2004, Línea2)
"Mundo sin corazón" (2006, Baga-Biga)

Diego Muñiz: ahotsa, gitarrak eta koruak

Ibai Mingo: koruak eta gitarrak

Oscar Obregón: bateria

ritxi aizpuru
(2009ko martxoaren 5a)



Linea2 taldea (Basauri, Bizkaia) 2001eko urrian sortu zen laukotea da. Estreinak musika akordetatik, Linea2 taldearen ezaugarri nagusiak rockaren espiritua, jarrera eta jitearekin kontzertuak eskaintzea izan da. 2002ko udan "Buscando la inspiración" izenburuko maketa ekoitzi zuten Laudioko House Records estudioan. 2004an Josue baxu-jotzaileak Linea2 taldea utzi zuen eta bere ordean Borja sartu zen. 2004an Linea2 taldeak lehen disko luzea grabatu zuen bere kaxa; izenburua, "La última gota". Linea2 taldeak, rockaren indarrak eta gogoak bizi zituen kontzertuz kontzertu. Rockarekiko grinak mantentzen zuen bildurik Linea2 taldea. Emanaldi andana eta kilometro mordoaren beste urrats bat izan zen grabaketa berria, Bilboko Boluetako Baga-Biga estudioetan; Kike Mora soinu teknikari zutela jaio zen Linea2 taldearen bigarren diskoa: "Mundo sin Corazón" (Baga-Biga). Baxu-jotzaile berria sartu zen 2007an, Javier, eta Linea2 taldearen bizkarrezurra hasierako hirukoteak izaten jarraitzen du. Dagoeneko 130 kontzertu baino gehiago eskaini dituzte.

Linea2 taldearen hirugarren diskoak "Brazos cruzados" du izenburua. 2008ko neguan Kike Moraren gidaritzapean Baga-Biga estudioetan sartu dira eta han egin dira grabaketak, nahasketak eta materizazioa; eta orain arteko emaitzarik sendo eta trinkoena lortu dute. Javier Ricok grabatu du baxua eta zuzenekoetan ere Linea2 taldearekin dabil. Linea2 taldeak, musikari-laguntzaileei dagokienez, bi izen handiren eskuartzea izan du. Marea taldeko Kutxi Romerok "Pan de ayer" abestian ahotsa sartu du eta garraztasuna atxekitu dio abestiari. Doctor Deseo taldeko Francis Diezek "Ojos tapados" abestian ahotsa sartu du, bere ohiko samurtasun kutxua erantsiz. Koru goxo gehiago, Patricia Zalaya Gaubeka, Versusdb taldeko abeslariak "El pasado ya murió" abestian koruak sartu ditu.

Linea2 taldearen "Brazos cruzados" diskoak bere osotasunean rock kaletarraren eta rock hiritarraren ezaugarriak gordetzen ditu. Linea2 taldeak kaleko rockaren indarra leuntasunez eskaintzen du, baina irmotasun ikutu batekin. Oinarri erritmikoaren berotasuna kolpeka dator gitarren laguntzarekin, sendo eta kupidarik gabe. Ahotsek sortuko dute gardentasuna. Linea2 taldea sortu aurreko musikaren eraginak antzematen dira apur bat gitarren soloetan; kaleko rockaren oinarriak 70 hamarkadako rock gogorrean du bere bihotz zatia. Linea2 taldea musika horien mugak dastatzen ditu paisaia hiritarrak deskribatzeko euren kantuetako hitzetan, non zama soziopolitikoak eta ekologikistak agertzen den, maitasun kontuekin batera.

